



Ur jauzi txikiak, errekaetoak, ipuinetako putzuak eta harkaitzezko biserak edertasunaren lehian aritzen dira lhuda ibaiaren inguruan dauden pagadi izugarri eta erkamezti handiekin, 21 kilometro inguru dituen ibilbide honen zati handi batean.

Lhuda ibaiaren Okinako haitzartea ibiltarien parajerik gustukoenetako bat da, inguru honek erakusten duen oparotasunagatik, batez ere udazkenean, eta Arabako hiriburutik kilometro gutxitara. Bere urek altxorrek ezkatzen dituen sakan bat sortu dute, adibidez milaka urteko hagin baso bat eta historiaurreko aztarnategi bat, Okina eta Saseta herrien artean. Eszenatoki nagusia, hala ere, Gasteizko Mendi Garaiak dira.


Ibilbide hau bi zatik osatzen dute: lehenengoak Andollu eta Okina lotzen ditu eta zailtasun handiagoa du; bigarrena errazagoa da, eta Okina eta Albaita artean kokatzen da. Gure ibilaldia bat dator Ardoaren eta Arrainarekin Ibilbidearen zati batekin (GR-38) eta berau erabili ahalko dugu gida gisa.



1. TARTEA: ANDOLLUTIK OKINARA

0 km	Gure abialekua Andollu jatetxeko aparkalekua da, izen bereko herrian. Hartu Estibaliztik etorri eta GR-38ra elkartzen den pista, Gasteizko Mendietara abiatzen dena.
0,15 km	Gurutzatu gure bidea, Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea, hain zuzen ere. Bide hori baztertu eta jarraitu zuzen.
1,4 km	Eskuinean ureztatzeko urmael bat utziko duzu. Jarraitu GRko pistatik, marka gorri eta zuriak oinarri hartuta.
2,2 km	Bidea banatzen da: hartu ezkerreko bidea.
3,1 km	Eskuinera bira egin GR-25etik.
3,3 km	Utzi atzean GR-25 eta jarraitu zuzen ezkerreko pistatik.
3,8 km	Gurutzatu ibaia eta, berau pasatu ondoren, jarraitu ezkerretik.
5,1 km	Bidea banatzen da: eskuinera jo. Gurutzatu ibaia eta ibilbidea jarraitu.
5,5 km	Bira egin eta igo eskuinera, eta jarraitu beti GRko markak. Tarte honetan hainbat bidegurutze eta saihezbide txiki aurkituko dituzu. Jarraitu beti marka gorri eta zuriak; horrela ez zara galduko. Tarte hau oso teknikoa da, eta saihestu nahi badugu, garai lehorretan ibaiaren ubidea jarrai dezakegu.
6,1 km	Urki baso baten ondotik pasatuko zara, eskuinera.
6,4 km	Bidegurutzea. Ezkerrera jo.

6,7 km	Eskuinera bira egin. Igoera gogorra.
7 km	Hesia gurutzatu eta jarraitu marka gorri eta zuriak.
7,3 km	Bidea suabe-suabe ezkerrera jaisten da. Jarraitu GRko markak eta landa batera iritsiko zara.
8 km	Bidezidorraren zati bat ibili ondoren, bidegurutzean eskuinera jo. Metro batzuk pasatu ostean, berriz ere sartuko zara pista batera eta ezkerrera jarraitu beharko duzu.
8,2 km	Hesiak. Pasatu ondoren, eta ezkerrera apur bat bira egin ostean, jarraitu bide zuzenetik, etxe baten eskuinean. Hori pasatuta, lhuda ibaia gurutzatu eta eskuinera jo. Beste hesi bat pasatu beharko duzu.
8,7 km	Bidegurutzea. Ezkerrera jo. Eskuineko bidea hartzen baduzu Osasunaren Iturrira iritsiko zara.
8,9 km	Hesi bat gurutzatu ondoren, pagadi batean sartuko zara. Jarraitu GR-38ko marka gorri eta zuriak.



GASTEIZKO MENDI GARAIAK



Arabako harribitxietako bat eta Lautadaren, Arabako Mendien eta Trebiñuren arteko muga naturala dira.

Mendilerro hau mendebaldetik ekialdera hedatzen da, **Gasteizko mendateik Okinako mendatera**ino, baso aberastasun zirrargarria duela. Izan ere, klima ozeaniko eta mediterraneoaren arteko trantsizio gunean kokatzen da.

Gailurrak oso garaiak ez direnez, ibiltarientzako eta perretxiko zaleentzako erreferentzia puntu dira, pagadi, amezti, erkamezti eta pinudietan barrena sartzen baitira.


Ohiko "biztanleen" artean kontserbazio interesa duten hainbat espezie nabarmentzen dira, besteak beste, gabiracia, miru gorria, zapelatz liztorjalea, lepahoria, basakatua, muxar grisa, saguzarrak edo baso igel jauzikaria.







2.TARTEA: OKINATIK ALBAITARA

10 km	Okina herrira iritsiko gara.
10,2 km	GR-38ko pistak jarraituz, herriko iturrira iritsiko zara. Iturrik oso hurbil dago GR-282 (artzain bidea). Hartu bide hori.
10,8 km	Gurutzatu hesia.
11,6 km	Pasabide eta zidor batetik, basoan barrena sartuko zara.
14,4 km	Bidea banatzen da. Hartu eskuineko bidea.
14,8 km	Gurutzatu hesia.
15,5 km	Sasetara iritsiko zara, aparkaleku batera, zehazki. GR-282 eta GR-38ko markak aurkitu, Albaitarako norabidean.  Kontuz! Puntu honetan Okinako haitzarteko ibilaldia amaitzen da (5,5 km). Bidean aurrerago joatea proposatzen dizugu. Horrela, GR-38tik, Albaita herria ezagutu ahalko duzu.
15,6 km	Eskuinera jo etheen artean, marka gorri eta zuriak jarraituz, errota eta ur jauziko bidetik.
16 km	Zubitik ibaia igaro ondoren, hartu ezkerreko pista.
16,1 km	Bidea banatzen da: bira egin eskuinera, utzi GR-282 eta jarraitu GR-38tik.




ALBAITA

Albaita herri txiki bat da eta oraindik ere Erdi Aroko trazadura dauka kale nagusiaren inguruan. Nabarmentzekoak dira **iturria**, 1870ekoa, Samaniegotarren **armaridun jauretxea**, XVIII. mendeko **parrokia eliza**, Granadoko **ermita erromanikoa** edo **harlangaitzeko etxe** multzoa Bakearen kalean.

17,7 km	Jarraitu zuzen Pariza aldera. Ezkerrean Urarterako saihe-bidea utziko duzu.
17,8 km	Bidea banatzen da: ezkerrean bira egin.
19,4 km	Ezkerrean bira egin eta metro batzuetan Pariza herria zeharkatuko duzu, marka gorri eta zuriak jarraituz. Herriaren amaieran eskuinera jo.
20,2 km	Bidegurutzera. Ezkerrean bira egin.
21,2 km	Zubi zaharrera eramango zaituen asfaltozko bidea gurutzatu. Hori pasatutakoan, bideak errepide nagusiaren azpitik eramango zaitu.
21,6 km	Albaita. Ibilbidearen amaiera.

IBILBIDEAREN PROFILA



LEKU INTERESGARRIAK



NATURA ETA PAISAIA

1. Okinako haitzartea
2. Ihuda ibaia
3. Ihuda ibaiko ur jauzi eta errekek
4. Sasetako putzua
5. Arangatxiko sakana

Inguruan:


- Gasteizko Mendi Garaiak
- Okinako zuloa



KULTURA

1. Andra Mariaren eliza erromanikoa (Okina)
2. Samaniegotarren armarridun etxea (Albaita)
3. Granadoko ermita (Albaita)
4. Hirigunea (Albaita)

MAPA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu:	Andollu, A-132
Distantzia, guztira:	21,6 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera:	3 ordu
Zailtasuna:	1. Tarte: Handia • 2. Tarte: Ertaina
Gomendatutako bizikleta:	BTTa
Desnibel metatua:	610 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...



OKINAKO ZULOA

Okinako erdigunetik hurbil dago **Zuloko Mendia**. Izena gailur hau zulatzen duen amildegi handiak ematen dio. **32 metroko putzu** bat ere badago, eta polita da ahora hurbildu, pago eta haritz artean, eta gainazaletik amildegi ikaragarri hau begiztatzea. Kondairaren arabera, jeinu ugari edo urrezko zezen handi bat dira putzu honen zaindaria, eta azken hori ez da kikilduko baten bat molestatzera badator.

SASETAKO UR JAUZIA ETA PUTZUA

Ihuda ibaiak, **Saseta eta Okina artean** egiten duen ibilbidean, irudi lirainak eskaintzen ditu bere **ur jauzi eta erreka** bidez. Sasetan, antzinako errota pasatu ondoren, ibaia ur jauzian eta putzuan ikus dezakezu, eta, zalantzarik gabe, ikusi beharrekoak dira biak ere. Errota honen antzera, Okinakoak, orain abeltzaintzarako berreskuratzen denak, ondo baino hobeto gogorarazten digu mendeetan zehar ibaiaren urak errota askoren motor izan zirela Trebiñun. Inguruan, zerealezko landek bere iragana berresten dute.